

GUaixe.net



Urrestarazuk
Akelarre bidea
kateatu du



Kirolak >> 10

Hirugarren urteurrena **ospatuko**
duetzi Josefina Arregui Klinikako
Lagunen **elkarteak Madoz eta**
Nagore omenduz



Sakanerria >> 7

Irurtzungo eta Arakilgo



Gazte Eguna

>> 5

Sunsundegui
bi autobus
modelo berri
aurkeztu ditu
Madrilen >> 8

Jon Etxeberria
bikaintasun
sariketan
hautagai >> 6

Desvarios
Varios-ek
diskoa
kalean du

>> 13

Jostailu trukea
prestatzen
hasi dira
Irurtzunen

>> 8



Azarokotea hemen da

>> 3



Lau artista sakandar
Suturak erakusketan

>> 15



Sagrado
Corazón
Madrilen
saritua

>> 8



Sakanako
Herri
Lasterketak
utzi zuena

>> 11



Castillo
Suarez
«Zerua berun»
albuma

>> 15

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak



Planeta urdinera
Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zeharra), **Altsasu**
Telf.: **948 468 559**
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Enaitz Carreño Goñi
ZORIONAK gure etxeko artzainari. Dagoeneko bigarren eskua jarri behar urteak esateko!! Muxu pila bat familia osoaren partez.



ZORIONAK aitaxo eta Enaitz!! Muxu potolo bana, Oinatz eta amatxon partez.



Aloña eta Anuska
ZORIONAK pixpiritak!! Printzesitak muxu handi bat zuen 4. eta 1. urtebetetzean aita eta amaren partez!!



Garazi
ZORIONAK Garazi!! Egun zoriontsu bat opa dizugu, gozatu ezazu maite dituzun guztiekin! Jarraitu horrela, irribarrerik galdu gabel! Patxo handi bat!



Irune
ZORIONAK bihotza!! Egun ona pasa eta muxu asko Altsasuko eta Dorraoko aitona-amonen partez eta osaba Jorgeren eta izeba Gemaren partez.



Ibai Galarza Zubiria
ZORIONAK potxolo!! 5 urte!! Gizontxo bat eginda zaude!! Oso ongi pasa zure urtebetetzean eta muxu handi bat etxekoaren partez.

lastailak-azaroak

31-6

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Choros Amici. Azaroaren 1ean, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan.

Txep, Txapelpunk eta En Tol Sarmiento. Azaroaren 1ean, larunbatean, 23:00etan Irurtzungo frontoian.

Zinema

Alabama Monroe. Lastailaren 31n, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Lasa eta Zabala. Lastailaren 24an, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 26an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Las aventuras de caperucita roja. Azaroaren 2an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Oroigane. Azaroaren 1ean, larunbatean, 9:00etan. **Etxarri Aranazko Larrañeta mendi taldea.**

Gorbea. Azaroaren 2an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak taldea.

Bizikleta irteerak


Arleze. Azaroaren 2an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Bioitza kanpinean. 53 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Pintura detritus. Azaroaren 1etik, larunbatean, 19:30etik abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

Altsasuko III. Arte Azoka. Azaroaren 2ra, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hiru keinu iraganari. Azaroaren 4tik 30era astegunetan 18:30etik



Txapelpunk.

21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Hitzaldiak

Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII liburur aurkezpena. Lastailaren 31n, ostiralean, 19:00etan Satrustegiko Mikorena etxean. **Hizlaria: Juan Madariaga Orbea.**

Arte gordina. Lastailaren 31n, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Helena Gonzalez.**

Bestelakoak

Gazte eguna. Azaroaren 1ean, larunbatean, 14:30etik aurrera Irurtzunen. **IAGA.**

Ping pong txapelketa. Azaroaren 1ean, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Zorri Azoka, merkatu soziala. Azaroaren 2an, igandean, 11:30etik 15:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

Josefina Arregi Klinikako Lagunen elkartearen urteurrena. Azaroaren 12an, igandean 9:30etik aurrera Altsasun. Ikus 7. orria.

Talo eguna. Azaroaren 2an, domekan, 12:00etatik 14:00etan Iturmendiko plazan.

EH Eren plangintzaren aurkezpena. Lastailaren 31n, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 31n, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

28ak libre. Azaroaren 1ean, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo Barazki plazan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Josefina Arregui klinikaren lagunak,
Suturak erakusketa,
Olaztiko Mintzakideak...

Esataria: *Eneida*

ezkaatza >>

>> Etxarri Aranatz

Sakanako artisau eta ekoizleen plaza
Igandean, 11:30etik 15:00etara Etxarri Aranazko plazan

Zorri Azokan Sakanako artisauak eta nekazaritza eta abeltzaintza ekoizleak elkartzen dira. Igandean euren mozkinak salgai jarriko dituzte. Etzi ere, ibarrean ekoizten ez den produkturen bateko salmahaia ere izanen da Etxarri Aranatzen. Azoka sozialean trukerako tarte ere eskaintzen zaie sakandarrei. Diskoak, liburuak, arropa, elektratresnak eta beste-lakoak eraman eta haiek trukatzeko aukera izanen da. Bestalde, antolatzaileek iragarri dute eguerdian Pantxika erosketak egitera joanen dela. Gainera, Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzua azokara gonbidatua izan da.



Eskaintza zabala izanen da Etxarrin.

SAKANA

Azorokotea, 10.000 boletoen erronka

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko establezimenduetan azaroaren 4tik 29ra erosketa egiten duenak eguberrikako zare izugarri handi baten zozketarako txartela jasoko du

Urte mugitua izan dute Sakanako hainbat dendarik. Sakanako Plan Estrategikoko bileren baitan ibar guztirako elkarte sortzeko aukera mahai gainean jarri zen eta, Sakanako dendariak, erronkari heldu zioten. Azkar eman dituzte urratsak. Elkarte sortua dute eta, dagoeneko, aurreneko merkataritza-promozio kanpaina aurkeztu dute: Azarokotea.

Aurreko bi urteetan Altsasuko Dendarien Elkartek (ADE) egin du kanpaina hori, aurten ibar guztira salto egin duena. Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko kide bakoitzak 60na euroko balioa duten ekarpenak egin dituzte eta beste hainbat produktu erosi dituzte. Hala osatu dute abenduaren 9an zozketatuko duten eguberri saskia: lentzeria, arropa, liburuak, disko gogorak, erlojuak, elektratresna txikiak, tableta, bidaiak, elikagaiak eta beste dituenak. Saskia Sakanako denden eskaintza ugariaren isla izanen da.

Zare hori eskuratzeko egin



Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzu Elkarteko zuzendaritzako behin-behineko zuzendaritzako kideak aurkezpenean.

beharreko bakarria elkarteko kide diren establezimenduetan azaroaren 4tik 29ra erosketa egitea da. Ondoren, dendariak emandako txartelean norberaren datuak idatzi beharko dira. Joan den urtean ADEk 5.000 txartel banatu zituen eta aurtengo erronka 10.000ra iristea da.

Elkarte sortu berriko Lorena Arangoa, Alberto Angiano, Tania Ganboa eta Dolores Urkijo izan ziren aurkezpenean. Atzera ere,

%72ko jaitsiera
Dendariak hornitzaileei egindako erosketak.

42
Gauregun elkartekide diren establezimenduak: 30 Altsasun, 6 Etxarri Aranatzen, 3 Lakuntzan, 2 Irurtzunen eta 1 Olatzagutian.

nabarmendu zuten “Sakanan merkataritzako elkartegintzak garrantzi handia” duela. Angianok nabarmendu zuen, elkarte, dendarien kezka eta proiektuak herriko eta ibarreko erakundeei jakinarazteko aparteko bitartekoa dela. Horre-

gatik, Ganboak, dendariei, ostalari eta zerbitzu enpresetako arduradunei kide egiteko gonbitea luzatuzien. “Ideia ugari ditugu eta lanerako gogoz gaude”.

>> Arakil / Etxarren

Etxarrengo frontoia arakildar guztiendako erabilgarri

Arakilgo Udalak eta Etxarrengo Kontzejuak Aranburu frontoia- ren erabilera zehazten duen hitzarmena hilaren 14an sinatu zuten. Han jaso dira arakildarrak frontoia erabiltzeko bete beharreko baldintzak. Migel izanen da kantxazaina eta hari 650 557 057 telefonora hots eginez edo Whatsapp bidez mezua bidaliz jarri daiteke harremanetan.

Frontoia erabili nahi den eguna baino 24 ordu lehenago egin beharko da erreserba. Frontoia erabiltzeagatik lau euro ordaindu beharko dira, eskura. Horrek duxak eta aldagelak erabiltzeko aukera ematen du. Eta argia behar izanez gero, aparte ordaindu beharko da. Horretarako dagoen makinan euroko txanponak sartu beharko dira. Frontoia erabili ondoren, 22:00etarako bueltatu beharko dira giltzak. Frontoia- ren erabilerak berarekin dakar azpiegitura zaintzea eta errespetuarekin erabiltzea.

Erreserbatzeko egunak eta orduak
Astelehenetan, 10:00etatik 12:00etara eta 18:30etik* 22:00etara.
Asteazkenetan, 10:00etatik 11:00etara.
Ostiraletan, 10:00etatik 12:00etara eta 18:30etik* 22:00etara.
Larunbatetan, 10:00etatik 11:30era eta 18:30etik* 22:00etara.
***Udako ordutegia 19:30etik aurrera izanen da.**

Haurrendako
Arakilgo haurrek jolasteko leku aproposa izan dezaten, hurrengo egunetan, 17:00etatik 19:00etara, frontoia argiarekin irekita egonen da: lastailaren 29an; azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an; abenduaren 10ean, 17an eta 30ean eta ilbeltza- ren 7an.

>> Olatzagutia

Oztopo arkitektonikoak kenduta, eskolan igogailua jartzera

Udalak oztopo arkitektonikoak kentzeko lanen bigarren fasea despiditzairekin batera hasi ditu eskolan igogailua jartzeko lanak

Olatzagutiko kaleak herritar guztiendako irisgarriak izateko udala pasa den urtean hasi zen hainbat lan egiten. Haurren gurdien- dako eta gurpildun aulkiendako oztopo dira askotan espaloietako koskak. Haietako asko behe- ratu dituzte. Aldi berean, oinezkoak seguruago joateko, udalak San Joan kalean espaloia ere egin du. Lan horiek egiteko udalak urte erdiz kisu- gil bat eta peoi bat kontratatu ditu. 13.150 euro bideratu ditu kontratazio horietara eta Nafarroako Gobernuaren 17.850 euroko diru- laguntza jaso du, guztira 31.000 euro. Gainera, lanak egiteko beharrezko materiala Olatzagutiko Udalak ordaindu ditu, horretarako 21.000 euro bideratuz.

Gurutze Rodriguez alkateak jakinarazi digunez, oztopo arkitek-



Lanak Olatzagutiko eskolan. ARTXIBOA

tonikoak kentzeko lanek heldu den urtean segida izanen dute. Espaloietan beheratzeak egin eta behar izanez gero espalo berriak eginen dira. Lan horietarako udalak diru- laguntza eskaera egin du: 8 hilabetez lanean ariko lirake- en kisu- gilea eta peoia kontratu nahi lituzke. Horretaz aparte, baso- lanak egiteko peoi bat kontratatze- ko laguntza ere eskatu du

Olatzagutiko Udalak.
Lanak eskoletan
Berriki hasi dira eskoletan igogailua jartzeko lanak. Alkateak jakinarazi digunez, abenduaren 8rako lanak despidituak egon behar dute, “diru- laguntza baldintza hori jar- tzen baitu”. Etxeberriko Lantegi SL enpresa ari da lana egiten, 42.793,77 euroren truke (BEZ kanpo).



Zoila Berastegi

astekoa

Maremotoa

“Maremoto”: latinetik “*mare*” Itsaso eta “*moto*” mugimendu. Lurrikara baten ondorioz sortutako itsaso mugimendu bortitza; olatu erraldioen dantza; kostaldeak irensten duen ez-ohiko ikuskizuna. Baina hara! Maremotoen inguruan idazten ari naizen honetan, gure burmuinean ematen diren milioika sinapsietako batean, “maremoto” hitza Maro-

torekin lotu dut. Ba ote du zeri-kusirik?

Maroto maremoto. Bertsolaritza-tatik ote dator kit sinapsi xe-lbre hau? Hitz jokoa eman leza-ke... Izan ere, ez da erraza PP-ko politikari bat fenomeno bat iza-tea, eta are gutxiago, fenomeno natural bat. Baina tira, sarkas-moak sarkasmo, nire garuneko sinapsi hau hitzetara itzultzeko

ahaleginean jarraituko dut. Ea, ikus dezagun...

Uztailean Javier Marotok etor-kin magrebiarrak laguntza sozia-letatik bizi zirela eta ez zutela lanik egin nahi baieztatu zuen. Inongo aurreiritzirik gabe; kasu batetik kausa batera jauzi egin gabe; batere orokortu gabe esan zituen Gasteizko alkateak esan beharrekoak. Behar den bezala,

zintzotasunez eta ziurtasun osoz, zientziaren zurruntasuna lagun.

Eta sinapsi apeten ondorioz, Gasteizen bizi diren magrebiar-rak, etorkinak, oro har, datoz-kit gogora. Ziurrenik haietako askok itsasoko olatuen mehatxua jasan behar izan zuten gure herri-ra iritsi aurretik, maitezuten guz-ti hori atzean utzita, urak betiko irentsiko zituen beldur. Eta ura-

ren ondoren, lurra. Gure lurra, haiena ere badena, besterik gabe, gurekin bizi direlako, gure bizi lagunak edo lankideak direlako. Baina ez... amets gaiztoetan lez, berriro ere betiko irentsikodituen olatu erraldoiaren mehatxua: Maroto maremoto.

Sinapsien aferan, harrigarria benetan Maroto bezalako politi-karien sinapsi falta.

barrutik kanpora

Ordainketaren aurrerakina

“Eta xxx euroko aurrerakina egin beharko da”. Ordainketa hau erres bezala ulertzen da, bai-na errealitatean, oso adigai zaba-la da; ez du beti esanahi berdina eta, batez ere, eroslearentzat ez ditu beti ondorio berdinak.

Babesa gutxiagotu egiten da paperean ezer ez ezarri eta ordainketa esku diruz egiten denean, inon frogarik ez dagoe-nean. Salmenta egiten duen alder-diak atzera egiten badu edo ados-

tutako ondasuna ematen ez badu, ez dago modurik ordainketa bat egin dela frogatzeko eta, horre-gatik, oso zaila da –parte hartzai-leen jarraz gain– dirua berres-kuratzea.

Kontsumitzailearen babesga-betasuna arin daiteke, gutxi bada ere, aurrerakina kreditu txarte-laz ordaintzen bada. Kasu haue-tan, kaltetuaren banku eragike-tak begira daitezke ordainketa bat egin dela frogatzeko.

Idatzitako kontratu bat funtsez-koa da, zeinean aurreratutako dirua, zeren erres gisa den eta aldeetako batek bere atala bete-tzen ez badu zer gerta daitekeen jasotzen den. Orokorrean, jende-ak uste du aurreratutako dirua jasotzen duen paper batekin nahi-koa izango dela. Hala ere, ez bada zehazten erres hori zer den, ara-zoak egon daitezke. Izan ere, nahiz eta erosle askok uste erres bat dagoenean beti atzera egin deza-

ketela eta aurreratutako dirua besterik ez dutela galduko, hau ez da nahitaez horrela.

Jurisprudentziaren arabera, erres batek erosketa atzera egi-teko aukera eman dezan honi dagokion aldean “zalantzarik gabeko borondatea” kontratuan agertu behar da. Irtenbide bat aurkitzeko, aukera hau modu argian eta espresuki agertu behar da. Zigor erres deituriko-ak dira. Kasu hauetan, erosleak

edo saltzaileak haien kontra-tuaren atala ez badu betetzen “bere borondate, ihesa edo ezin-tasuna kontutan hartu gabe”, kontratuaren suntsiarazpena eska daiteke, erresaren ordain-keta ezarritik –edo honen kopia–, kontratua bete duen aldeek jaso-ko duena.

Iratxe kontsumitzaileen elkarte

hara zer dien

Pantailekin harremanak familian

Gurasoon ardura eta kezka da umeen babesa, bizitzako arlo guz-tietan. Gaur egungo gurasook erronka berri bat dugu honen inguruan. Gu gazteak ginenean ez zegoen harremanetan jartze-ko orain dauden modu berriak. Pantailez ari naiz, eta jada hain berriak ez diren teknologiez.

Gure seme eta alabek baino hobekiago inoiz menperatuko ez ditugun pantaila, mugikor table-tak eta abarrek mesfidantza han-dia sortzen badute ere, hor dau-

de, gure eskuetan eta beraie-ne-tan. Erabiltzea ukatu beharrean erabilpen egokia bultzatzea da gure proposamena, pantailen asuntoak pantailetatik kanpo gertatzen denarekin zerikusi han-dia duela kontutan izanez. Hezi-ke-tan oinarrian dauden komuni-kazioa, modeloak, baloreak... lan-tzea eta bizitzaren hasieran lehendabiziko pausoak ematen laguntzea da gure erronka.

Hezkuntzan komunikazioak garrantzia handia duela ez da

nobedadea. Gure umeak pantai-len erabileran hazi nahi baldin baditugu, komunikazioak izango du berriro ere garrantzia. Beraiek nola erabiltzen duten jakiteko hoberena gure erabilpena beraie-kin komentatzea da, laguntza eskatzea eta gure iritzia ematea. Mesfidantza sortzen badigute ere, pantailak erabiltzeak gauza onak badakartza eta horietaz jabetzea eta hitz egitea ona da. Seme ala-bek gure iritzia erabat ezkorra dela uste badute ez digute gai

horren inguruan ezer esango.

Beraiekin bideo jokoekin jolas-tean oso momentu onak pasa ditzakegu, eta bitartean jokoak ezagutu eta baita iritzia eman ere.

Teknologia hauek etxean era-biltzeko arauak beharrezkoak dira, denon artean neurri bate-an adosten baditugu ere.

Gurasook modeloak izan gaitez-kegai honetan. Gu telefonoa esku-tik askatu gabe bizi baldin baga-ra ezin izango diegu beraiei bes-terik eskatu!

Kontutan hartu beharreko bes-te faktore bat, erabilpen adina da.

Errealista izateko, gure helbu-rua ez da pantailak ez erabiltzea, gutxiago erabiltzea baizik, edo aurrez aurreko harremanak ez ordezkatzeko. Honen inguruan gure seme alabek pentsaraztea eta iritzi pertsonala garatzea lortzen badugu, ziur beraiek pantailekin duten harremana eta erabiltze-ko duten modua askoz osasun-tsuagoa izango dela.

Gizarte Zerbitzuak

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla Kanpos
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

>> Arakil / Irurtzun

Gazte Eguna, IAGAren aurkezpena

Bihar, 14:30etik aurrera, Irurtzunen
Maialen Huarte Arano

Domu santu eguneko asteburua hitzordu seinalatua izan da azken 12 urtetan Irurtzunen, Arakilen, Sakanan eta Euskal Herrian. Pikurock jaialdiak gazte ugari erakartzen zituen. Haren faltan, aurren sortu den Irurtzungo eta Arakilgo Gazte Asanbladak (IAGA) Gazte Eguna antolatu du.

Egitaraua

14:30ean Bazkaria, frontoian.

17:00etan Mus eta partxis txapelketak, Larrazpin.

19:00etan Triki-poteoa.

20:00etan 28ak libre kontzentrazioa, Barazki plazan.

23:00etan Txep, Txapelpunk eta En tol sarmiento taldeen kontzertuak, forntoian.



Biharko Gazte Egunerako dena prest dute irurtzundar eta arakildar gazteek. UTZITAKOA

gertutik >>

Uxue Galartza eta Aitor Agirrezabal

Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanblada

Talde sortu berria da. Nolaz sortu da?
Aspalditik ikusi da gazteak elkartzeko beharra Arakilen, hala nola Irurtzunen. Urte asko izan dira gazteria aktibatzeko lanetan arazo ugari izan direla, baina belatunaldi gogotsu berriak datoz. Antolakuntza, bertako gazteen buruhauste nagusiei erantzuna emateko intentzioaz jaio da Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanblada (IAGA).

Noiztik ari zarete biltzen?
Aurtengo maiatzean hasi ginen eta oraindik hazkunde prozesuan gaude. Gero eta jende gehiago animatzen ari da gurekin bat egitera eta horrek indarrak ematen dizkigu.

Arakilgo eta Irurtzungo gazteak beharrezkoa zenuten elkartzea?
Urte asko dira gazte dinamika finko baten beharra dagoela bai-

laran. Hasteko, beharrezkoa ikusi zen indarrak batzea eta elkarrekin lanean jartzea. Etorkizunak esango digu zein bide hartu behar dugun, baina, gaur gaurkoz, batzuen eta besteen arazo eta egunerokotasunak eskutik hartuta doaz. Hezkuntza edo lan mundura sartzeko arazoak, Inasaren kasu berezia... Beraz, elkarrekin aurrera begira jartzea erabaki dugu.

Zein helbururekin sortu duzue Gazte Asanblada?
Helburua gazteak euren orainaren eta etorkizunaren jabe bihurtzea da. Bajera eta tabernetatik ateratzea eta egunerokotasunak dakartzan gainbehera aurre egiteko Irurtzun eta Arakil martxan jartzea. Beti esan izan da gazteak etorkizuna gurea, baina orainaren parte garrantzitsu bat ere bagara, eta parte-hartzaile izan nahi dugu.

Zenbat gazte osatzen duzue?
Lehenengo erantzuna bikaina izan da. 20-30 lagun elkartu gara bileretan. Oraindik ere, gutxika beste asko erakartzea da helburu. Bakoitzak ahal duen moduan, bere aletxo jarri eta talde zabal eta heterogeneo bat osatzeraino.

Non elkartzen zarete?
Udan, hasieran, Irurtzungo barazki plazan elkartzen hasi ginen baina orain gehienetan kultur etxeko gela batean izaten ditugu bilerak, formaltasun puntu bat ematearren.

Zein gai ari zarete lantzen?
Irurtzun eta Arakil martxan jartzeko zer egin behar den lantzen aritu gara, hainbat ekintza egin ditugu udan ezagutzera emateko eta gazte ezberdinak erakartzeko (hanka palo ikastaroa, ginkana Irurtzundik...) eta azkenaldian Gazte Eguna antolatzen aritu gara gehien bat. Hemendik aurrera zer gai landu eta zer antolatuko dugun ikusteko dago oraindik.

Gaur egun, gazteen artean, zerk

sortzen du irrika?
Hau da IAGAren helburu eta garaipen nagusietako bat. Gazteen bizitza, azken aldian, parranda eta lagunartea murriztu da. Bi puntu hauek garrantzitsuak dira, noski, baina beste arazo batzuk ditugu gazteok gaur egun. Gero eta gehiago gara kalitatezko hezkuntza sistema publiko baten beharra lehentasuntzat dugunok. Lan mundurako sarrera gero eta zailagoa daukagu, edota baldintza lotsagarrietan. Asko dira atzerriara doazenak. Atzerriara irtetea ez da txarra, inolaz ere, baina garrantzi handiagoa du bertakoa, etxekoa, aldatzen saiatzea.

Gazte Eguna antolatzen ari zarete.
Hala da. Sortu berritan ezagutzera ematea garrantzitsua da. Aurretik, zoritxarrez, Pikurock jaialdia ez da ospatuko, eta egunaren erreferentzialtasuna ez galtzarren, aukera ona ikusi zen IAGA plazaratzeko. Larunbatean izanen da, azaroaren lehen, eta egun osoko egitaraua daukagu prestatuta Irurtzunen. Harrera itzela izanen duela ematen du, 100dik

gora lagun elkartuko gara bazkaltzeko. Herritar guztiek, eta batez ere gazteek, IAGAren dinamika ezagutzeko aukera izanen dute, eta espero dezagun honek ere jende gehiago erakartzea.

Aurrera begira, zer espero duzue gazte asanbladarengandik?
Gazte ororen arazoei aurre egiteko prest egon behar dugu. Guztioi eskaini ahal diogu zerbait asanbladari eta asanbladak guztioi eskaini diezaguke gauza asko.

Jendeak zuekin bat egin nahiko balu, nora jo dezake?
Hasieran kartelak jarri genituen eta baita Irurtzungo bajera ezberdinetatik pasa ginen elkartuko gizona azalduz. Orain gazte asanbladako twitter eta facebook orrian jartzen dugu noiz diren bilerak eta edozein pertsona ongi etorria izango da. Gure lana guztiz publikoa da eta ahalik eta gazte gehienetara iristen saiatu gara. Nahi duen orok, gutako edozeini galdetuz edota lehen esan moduan bileretara etorritz gurekin bat egin dezake.

asi

arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa

PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

- Depresioa, antsietatea
- Agorafobia
- Autoestima baxua...

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
948 467 354 - 669 367 422

TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 • ALTSASU

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astehenetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

PORTUKO okindegia

Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etzarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

>> iturmendi



Zartaletako olio eta arto irin artean ibiliko dira atzera ere.

Talo festa etzi

Domekan, 12:00etatik 14:00etara, plazan

Iturmendiko Kultura Batzordeak etzirako eskaintza prestatu du: talo eguna. Herriko talogileak eguerdi partean hasiko dira taloak egiten. Arto opilak txistorraz, txokolatze edo tripotxaz lagunduta jateko aukera eskainiko da domekan. Horretaz aparte, salmenta postuak izanen dira. Batzordeko kideek jakiez osutako lote baten zozketa ere egingen dute.

>> Etxarri Aranatz

Ahozko ondarearen gordailua

Horixe da Etxarri Aranazko Udalak sortu duen www.etxarrikoahotsak.com web gunea

Ostiralean egin zuten aurkezpena, 40 bat etxarriarren aurrean. Interneteko atarian etxarriarren ahozko lekukotasunak jaso dira bideo, audio, transkripzio modura. 70 lekukotasun baino gehiago eta 60 orduko iraupena duten grabazioak dira.

Etxarriarrak www.etxarrikoahotsak.com web orriaren aurkezpenean.

Toponimiak ahozkotasuna eta pentsatzeko modua adierazten duela, merezitako tokia du web gune

berrian. Bertako euskalkiari buruz argitaratutako bibliografiaren berri ere ematen du atal batek.

>>



Jon Etxeberria Ijurra.

Etxeberria hiritar bikaintasun sariketako hautagaia

Diario de Noticias egunkariako irakurleek web orriaren bidez egindako bozketa bidez lau hautagairen artean aukeratu dute

Jon Etxeberria Ijurra etxarriarra, beste hiru hautagairekin batera, aurten estreinakoz emanen den hiritar bikaintasun sarietarako hautagaia da. Besteak beste, Sakantzen Sarearen bitartez ibarrean enpresak sortzeko egindako lanagatik aukeratu dute Etxeberria hautagai izateko.

Diario de Noticias egunkariak sustatu du sariketa eta haren bidez "pertsonek batek bere jardun profesionalaren bidez gure gizartea hobetzeko egindako ekarpena aitortu nahi du". Azaroaren 23ra arte hautagaien alde bozkatu daiteke www.noticiasdenavarra.com web orrian. Saria azaroaren 27an emanen da, Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioak Barañainen egingen duen galan.

SAKANA

Tolosako azokako sukaldea Sakanan eginga

Batuta taldeak egin du eta larunbatero hainbat sukaldarik azokan bertan erositako produktuak pintxoak egingen dituzte

Hilaren 18az geroztik Lurretik sukaldera izeneko egitasmoa martxan dago Tolosako azokan. Nafar zubiaren ondoko txokoan larunbatero sukalde bat muntatzen dute eta hainbat sukaldarik azokan bertan erositako produktuak baliatuz pintxoak egiten dituzte, edariarekin batera, 2,5 euroan saltzeko.

Sakanako Birziklaketa Laborategia, Batuta taldea, izan da sukalde hori egin duena. Altsasuko Gure Etxean euren burua aurkezteko egindako barra gustatu eta

Tolosarrak sukaldariaren mokaduak dastatzear. WWW.ATARIA.INFO

sukaldea egiteko eskaera jaso zuten Tolosatik. Palet egurrez forratutako burdinazko egitura arina prestatu dute Birziklaketa Laborategiko kideek, sukalde bate-

rako beharrezko arraska, balda eta beharrezko guztiekin. Guztiz bilgarria da eta erabili ondoren paletekin egindako kutxa batean gordetzen da sukaldea.

SAKANA

Eremu euskaldunerako hizkuntza eskakizunik gabe

Aurreko ostegunean Nafarroako Parlamentuak atzera bota zuen udalerri euskaldunetako herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko funtzio publikoan plantilla organikoak aldatu, eta eremu euskalduneko profesionalei hizkuntza eskakizunak jartzeko eskaera. Bilduk eta Aralar-NaBaik aur-

keztu zuten mozioak I-E eta Geroa Bairen babesa jaso zuen, baina ez zen onartu UPNk, PSNk eta PPK kontrako botoa eman zutelako.

UEMAk "oso larritzat" jo zuen, atzera ere, parlamentuak "entzungero egitea herritarren eskaerei, eta udalerri euskaldunek proposatutako neurriak aintzat ez hartzea".

>> Izurdiaga

Trenbide-pasako lanak heldu den urtean hasiko dira

Ahozko baieztapenabai, baina, momentuz, Arakilgo Udalak ez du Nafarroako Gobernuaren inolako agiri ofizialik. Sustapen Departamentuak proiektua eginaduta, egitasmoak, Ingurumen Eragin Adierazpena jasoa du. Antza heldu den urtean hasi daitezke lanak. Izurdiagan, bitartean, herritarrek xuxu dira trenbide-pasako barrerak behin baino gehiagotan ez direlako ongi ibiltzen eta arriskua dagoelako.

>> Altsasu

Udalak hiru udaltzain postu betetzeko deialdia egin du

Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hilaren 20an egindako bilkuran lan publikoaren eskaintza egitea erabaki zuen. Udalaren plantillan hutsik dauden hiru udaltzain postu oposizio bidez bete nahi ditu udalak. B2 edo baliokidea den hizkuntza eskakizuna izanen dute lanpostu horiek.

>> Arbizu

Garagarrilean epaituko dituzte aurreko udala mehatxatu zituztenak

Falange y Tradición taldeko kideak Espainiako Auzitegi Nazionalan epaituko dituzte garagarriaren 8, 9 eta 10ean

Talde ultraeskuindarreko hiru kide izanen dira epaituak. Falange y Tradición taldeak 2009ko otsaila eta lastaila artean frankismo biktimen oroigarriak hautsi eta ezker abertzaleko kideen kontrako ekintzak eta heriotza-mehatxuak egin zituen. Hala, urte hartako agorriaren 20an Arbizuko udaletxean lau udalordezkariren izenak eta haien kontrako heriotza mehatxu pintaketak (orain zelatan, bihar hilko zaituztegu) agertu ziren. 2009ko lastailaren 23an egindako sarekadan Guardia Civilak taldeko bost kide atxilotu zituen. Haietako hiru epaituko dituzte eta fiskaltzak 7 urteko espetxe zigorra eta eragindako kalteak ordaintzeko 4.500 euro eskatu ditu. Arbizuko Udala ere akusazio partikular gisa izanen da epaiketan.

>> Altsasu

Errepublikazaleak azokan sinadurak biltzen

Prozesu Konstituziogile Errepublikazalea abiarazteko eta monarkia eta errepublika aukeratzeko erreferenduma egiteko jaso dituzte sinadurak

Nafarroako Ezkerreko Batzorde Errepublikarreko (NEBE) kideak herenegun Altsasuko azokan sinadurak biltzen aritu ziren. Errepublikaren aldeko esku-orriak zabaltzearekin batera, bi sinadura bilketa egin zituzten. Alde batetik, herritarrek oinarri izanen dituen konstituzio berria lortzeko Prozesu Konstituziogile Errepublikazale bat martxan jarri nahi dute. Haren aldeko sinadurak bildu eta Nafarroako erakundeak haren alde agertzea eskatu dute errerepublikazaleek. Aldi berean, herritarrek monarkia edo errepublika nahi duten jakiteko erreferenduma egiteko sinadurak ere bildu zituzten NEBEko kideek.

>> Etxarri Aranatz

Galdeketatik galdeketara

Etxarri Aranazko independentziari buruzko galdeketa Bizkaiko Arrankudiagan emanen diote segida asteburuan. Apirilaren 13ko galdeketa antolatu zuen A13 ekimenak Arrankudiagara joateko autobusa antolatu du. Hala, etxarriar mordo bat izanen da Bizkaiko herri galdeketa leku eta "haiekin eguna ospatu eta elkartasuna" adieraziko diete.

SAKANA

Pintaketan aitortza

Ahotsa.info atariak jakinarazi duenez, urtetan Sakanan agertu izan diren pintaketak guardia zibilak egin zituzten. Ahotsa.info guardia zibil baten Facebook profila aipatzen du iturri gisa. Hala, agenteak bere argazkiak igoak ditu eta berak eta beste militar batzuk komentarioak egin dituzte, antza, pintaketak aitortuz. "Guerrilla psikologikoaren" parte liratekeela aipatzen du haietako batek. Urteetan aldarrikapen muralen eta oroigarrien kontra pintaketak agertu dira Sakanan, baita Espainia goratzeko edota eskuin-muturreko mezuak zabaltzeko ere.

» Altsasu

Euskaraz hitz egiterakoan eroso sentitzeko

TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) tailerra izanen da azaroaren 21ean, ostiralean, 17:00etatik 20:00etara, eta 22an, larunbatean, 9:30etik 13:30era, Intxostiapunta gazte gunean

Euskaldunen arteko sareak pixkanaka ehuntzen ari badira ere, egunerokoan altsasuar askok ez dakite parean duten pertsonak euskaraz dakien edo ez. Egoera horrek euskaldunengan deserosotasunak sortzen ditu, ez baitakite euskaraz egiten segi edo zer egin euskaraz egin eta beste hizkuntza bate-

an erantzuten dietenean.

Deserosotasun hori arintzeko eta desagerrarazteko baliabideak ematen ditu Taller d'Espai Lingüístic Personal-ek, TELPek. Tailerra Valentzian sortu zuten Ferran Suay eta Gemma Sanginés psikologoek. Azken hori izanenda, hain zuzen ere, azaroan Altsasun izanen dena. Tailerra euskaraz izanen da eta parte-hartzaile euskararekiko kontzientzia izatea, eta euskaraz egiteko gogo izatea eskatzen diete. Tailerra Euskal Herrian Euskarazek antola-

tu du, Altsasuko Udalak eta Sakana-ko Mankomunitateak lagunduta.

Izen ematea

Astelehenean zabalduko da eta azaroaren 14ra arte egonen da zabalik. euskara@sakanamank.com helbidera edo 948 464840 telefonora hots egin daiteke. Matrikulak 20 euro balio ditu, baina ikastaro osoa eginez gero, dirua bueltatuko da. Dirua ES48 3035 0116 98 1160700362 kontuan sartu behar da, TELP eta izen-abizenak gehituz.



Altsasuarrak Zumalakarregi plazako itzalean. ARTXIBOA

SAKANA

«Ahal dugun moduan lagunduko dugu klinikak aurrera egiten»

Igandean ospatuko du hirugarren urteurrena helburu hori duen Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak

Etzi goiz eta eguerdi parteko egitarau batekin ospatuko du Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak bere urteurrena. Elkarteak kide Genaro Paniaguak Belexe Irratian (FM 107,3) azaldu duenez, batez ere klinikaren egoera ekonomikoak eragiten zuen larritasunaren ondorioz sortu zen elkarteak. «Klinikatik pasatzeko beharra izan dugunok nolako zerbitzua eskaintzen duen ezagutu dugu. Bereziki sakandarroi, batez ere, eguneko zentroak gaixoen familiei eskaintzen dien laguntza».

Duela urte batzuetako «gain behera eteteko» sortu zuten elkarteak, bi hilebururekin. Bata, klinikako eraikinaren mantenu lanak egitea. Boluntario talde bat eguneroko mantenu lanaz arduratzen da (matxurak konpondu, belarra moztu...). Eta, bestea, ahal den neu-

Zerbitzuak

Josefina Arregi klinikak 21 ohe ditu. Horretaz aparte kanpo kontsultak eskaintzen ditu eta eguneko zentroa du. Azken horrek 25 pertsona hartzeko aukera du. Klinikak 55 langile aritzen dira.

rrian, ekonomikoki laguntzea. Hori bi modutan egin daiteke: bazkide eginez eta kuota bat ordainduz (gutxienezko kuota urtean 12 eurokoa da) eta ahal den neurrian enpresa laguntzaileak opatuz. Azken finean, «klinikak dituen baliabide guztiak gaixoak sendatzen edo laguntzera bidera ditzala nahi dugu».

Paniaguak esan digunez, «ahalik eta bazkide gehien lortzea da helburua, administrazioaren aurrean edo edonon aurkezterakoan pisua duelako eta zeresan handiagoa ematen duelako bazkide kopuru polit bat izateak».



Hilabeteen euro bat ordainduta izan daiteke elkarteak kide. Goian kide egiteko eta informazioa emateko mahaia. ARTXIBOA

Omenduak



Bi pertsona omenduko dituzte igandean, arlo ezberdinetan Alzheimerren inguruan egindako lana eskertu nahi zaie. «Biak, ahal duten neurrian, beti laguntzeko prest daude» azaldu digu elkarteak. Bata **Vicente Madoz** da, Josefina Arregi klinikako sortzaile eta zuzendari izandakoa. Nafarroan buru-osasunaren inguruan lan handia egin duen mediku-psiikiatra. Jubilatua dago. Baina egin duen ibilbidea eta lan guztia aitortu eta eskertu nahi dio elkarteak. **Guillermo Nagore** kazetariak, berriz, Finisterre eta Jerusalem arteko ibilbidea egin zuen demenzien inguruko kontzientzia sortzeko eta Alzheimerren aldeko estatu politika eskatuz. *La memoria es el camino* izena eman zion.

Ibilaldia

Nagorek egindako ibilbide haren ondoren etapa berriak ibili ditu han-hemenka. Esaterako, aurreko etapa, 176.a, Altsasun bertan ibili zuten Nagorek eta klinikako makina bat lagunek joan den urteko otsailaren 24an, elkarteak jendaurrean aurkeztu zenean.

Etzi 177. etapa egiteko gonbitea luzatu dute elkarteak. Klinikatik 9:30ean abiatuko dira eta Altsasuko Mendigoizaleek antolatutako bide zelai batetatik San Pedro ermitara joan etorria egingen dute. Bidean, eta klinikako langileek proposatuta, Alzheimerri edo bestelako demenziei buruzko leloak eta azalpenak jarriko dira.

Egitaraua

9:30ean *La memoria es el Camino* proiektuaren 177. etapa, Klinikatik San Pedro ermitara joan-etorria.
11:00etan Klinikara iritsiera.
11:00etatik 12:00etara Hamaiketakoa eta haurrendako jolas-txokoa.
12:00etan Vicente Madoz Jauregiren eta Guillermo Nagore Fraucaren ohorezko bazkide izendapen ekitaldia Iortia Kultur Gunean. Jaione eta Aintzaneren musika emanaldia.

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

NEREA

ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.

Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)

LAKUNTZA. TFN:948 576 331

xapatero

taberna

948 460 162

Etxarri-Aranatz

>> Altsasu

Sunsundeguik bi autobus berri aurkeztu ditu

Nazioarteko autobus eta autokar azokan, asteartetik bihar arte ari dira produktu berriak ezagutarazten

Bi autobus modelo berri aurkeztu zituen asteartean Sunsundeguik Madrilan, SC5 eta SB3. Haiek sortzeko joan den urtean Urteko Autokar Onenaren Saria jaso zuen SC7 modeloan oinarritu da Sunsundegui. Enpresatik adierazi dutenez, “kalitatea, fidagarritasuna eta iraunkortasuna” dira autobus modelo berrienezaguarriak, “bezeroen behar eta zerbitzu behar guztiak asetzen dituztenak”.

Sunsundeguik ibilgailu pertsonalizatuak ekoizteko lkerketa, Garama eta Berrikuntza departamentuaren eskarmentua baliatu du, bertako ingeniariak garatua. Ildo estrategikotzat dute horien enpresan. Bestalde, azken teknologiez hornitu dituzte bi modelo berriak eta diseinu ezberdin eta berritzailea erabili dute. Erabiltzaileendako ibilgailuen barruko alde zabala eta sendoa eskaintzen dute. Biak ere modulagarriak dira, bezeroen eskareiei egokitzeko. Konforta, kalitatea, irisgarritasuna eta mantenuan mailarik onena emateko apustua egin du Sunsundeguik.



“Produktuarekin lotura duten langile eta hornitzaile guztien jarreraren fruitua dira bi modelo berriak”. UTZITAKOA

SC5

Balio anitzeko autokarra, bere moldagarritasuna eta funtzio ugaritasuna dira bere ezaugarriak. Aldirietako zerbitzu, eskola-garraio edo enpresa-garraiorako sortu da, baina baita distantzia luzeetarako ere. 10 eta 15 metro arteko luzeran erabiltzen dituzte, bi edo 3 ardatzekin.

SB3

Hiri-inguruko eta hiri arteko zerbitzu etarako, distantzia ertainetarako diseinatutako autobusa da. Bere ezaugarrietako bat barruko aldearen modulagarritasuna eta moldakortasuna da. 10 eta 18,75 metroko luzera artean ekoizten dituzte, bi edo hiru ardatzekin eta zoru altu edota sarbide errazekin.

25 urte autobusgintzan

Sunsundeguik trenekin lan egin zuen sorreratik, baina pasa den mendeko 80ko hamarkadako krisialdiarekin bere negozio aukeradibertsifikatu egin zuen eta autobusen karrozeria egiten hasi zen. Lehen modeloa, Korinto, 1989ko garilaren 11n aurkeztu zuten. Hurrengo urtean hasiko ziren autobusak seriean ekoizten.

>> Irurtzun

Atakondoan jostailu bilketa egingen dute

Heldu den astean, 9:15etik 9:45era, eskolako sarreran jasoko dira ikasleek eramandako jostailuak

Erabili ez eta egoera onean dauden jostailuak dituzten ikasleek haiek eskolara eramane ditzakete heldu den astean. Bat baino gehiago. Asko eramanda ere, Atakondoa ikastetxeko ikasle bakoitzak txartel bat jasoko du. Hura azaroren 8an, larunbatean, egingen den jostailu truke azokan erabili ahal-

ko du eta, horrela etxera jostailu berri bateramanen du, beste ikasle batek emandakoa. Soberan gelditzen diren jostailuak Senegalgo umeekin lan egiten duen gobernuz kanpoko erakunde bati emanen zaizkio.

Atakondoako Guraso Elkartek, Itxipuruk, Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Sakanako Mankomunitateko Inmigrazio Zerbitzuak antolatatu



Eskolara bidean. ARTXIBOA

dute jostailu trukaketa. Gizarte Zerbitzu etako Iosune Zabalak azaldu digunez, ekimen horrekin “neska-mutilak trukaketak dituen onuren inguruan sentsibilizatu” nahi dituzte, “elkarbanatzearen eta aldatzearen baloreak transmitituz”. Aldi berean, txikiei “zaharrak balioa duela” ikusarazi nahi diete, aldi berean, “jostailuen kontsumoaren aurrean jarrera kritikoa sustatuz”.

>> Altsasu

Sagrado Corazon ikastetxearen ingurumen lana saritua

Ingurumen saria jaso zuen ostiralean Atresmedia fundazioak Santillanarekin batera antolatutako Iniciativas que educan sariketako bigarren edizioan

Altsasuko ikastetxeak lehiaketara Shakanarum ekimena aurkeztu zuen. Sagrado Corazon ikastetxeko Ekokoras taldeak egindako lana jasotzen du ekimenak. Ikasleek hiru proiektu garatu zituzten aurreko ikasturtean. Alde batetik, txoko berdeak dau- de, birziklatutako materialetan oinarritutako lorategi bertikalak. Bestetik, bide berdea dago, ikasleak ikastetxera oinez modu seguruan martxan jarritako proiektua. Eta, azkenik, txirrin-

dulargi dago, txirrindula berezietan ibiliz ikastetxean berrerabiltzeko energia sortzen dute.

Sagrado Corazon ikastetxetik adierazi dutenez, sariaren meritua hezkuntza komunitatea osatzen duten guztiena da: guraso, ikasle, irakasle eta zuzendaritzarena. “Zeren batek ideia izan behar du, baina, hura bere egin eta garatuko duten irakasleak behar dira ere. Ikastetxeak eta gainontzeko irakasleek babestu behar dute ideia, eta gurasoek laguntza eman. Ikasleek ezinbesteko parte hartzearekin, jakina”.

Guztira 450 lan aurkeztu ziren sariketara. Hezkuntza maila hobe-



Ekokoras taldeko ikasle eta irakasleak. UTZITAKOAK

tzeko eragin handia eta eredu diren irakasleek eta ikastetxeen proposamen inspiratzaile eta berritzaileak saritu ditu Atresmedia fundazioak sariketa horretan, sei mailatan. Teknologia eta

metodologia berritzaileen erabilerarekin kontuan izan dituzte antolatzaileek saria ematerakoan. Aldi berean, antolatzaileek sarituek hezkuntzarekin duten konpromisoa aitortu nahi izan zuten.

SAKANA

Hondakin biltzaileen egunaren eragina

Heldu den astelehenean hondakin biltzaileen patroia ospatuko da, San Martin de Porres. Hori dela eta, Sakanako Mankomunitateak jakinarazi du astelehenean ez dela garbigune mugikor zerbitzurik izanen eta Arbizuko hondakindegia itxita egonen dela. Ibarreko erakundetetik azaldu dutenez, gainontzeko bilketa zerbitzua normaltasunez eskainiko da.

Iruñea eta euskal Yren arteko lotura ikerketzeko dirua eskatu du Geroa Baik

Estatuko aurrekontuen lege egitasmoari Geroa Baik 34 emendekin aurkeztu dizkio, Rajoyren gobernuaren legeari “hainbat murrizketa” zuzendu asmoz. Horrekin batera, Espainiako Gobernuak Nafarroan 8 milioi euro gehiago inbertitzeko eskatu du koalizioak. Geroa Baik Sustapen Ministerioari eskatu dio milioi bat euro bideratu dezala Hego Euskal Herriko abiadura handiko tren sarean loturaren azterketa egiteko. Iruñea eta euskal Y tren sarearen lotura Sakanan barna egingen litzateke.

Argindar linearen kontrako marea gorria

Larunbatean Deikaztelu eta Itsaso artean Red Eléctrica Españolak egin nahi duen 400 kv-eko argindar sarearen kontrako protesta egin zen Donostian. Autopista Elektrikorik Ez! plataformak deituta Kontxako hondartzan elkartu zirenek hiruki gorri bat osatu zuten, egitasmoaren “arriskua” irudikatzeko. Plataformak, atzera ere, proiektuaren tramitazioa eta egitasmoa bera bertan behera uzteko eskatu zuen. Aldi berean, Hego Euskal Herriko bi administrazioei proiektuaren kontrako jarrera hartzeko eskatu zieten.

>> Arruazu

Gorenak tartalarien kontrako epaia berretsi du

Mugitu! Mugimenduko Gorka Ovejerori, Julio Villanuevari eta Ibon Garciari bi urteko espetxe zigorra eta bakoitzari 900 euro inguruko isuna ezarri zieten, atentatua leporatuta

Yolanda Barcina Angulori tartak botatzeagatik Espainiako Auzitegi Nazionalak pasa den urteko azaroren 13an emandako epaia berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak. Atzera bota du tartalariak aurkeztutako kasazio-helegitea.

FUTBOLA

EGIARRETA-ZALDUA DERBYA: Elomendiko Txapelketan Egiarretak bina berdindu zuen Ororbiaren kontra eta Arakilgo Zalduek 0-1

irabazi zion Izalsari. Bar Poukas da lider, Egiarreta 3.a eta Zaldua 6.a. Asteburuan bi talde arakildarren derbya jokatu da.

kirola >>

Irristaketa



Ioseba, Mundialetara

Azaroaren 6tik 15era Abiadurako Irristaketako Munduko Txapelketa jokatu da Argentinako Rosario hirian. Espainiako selekzioko Garikoitz Lerga selekzionatzaileak sei irristalari hautatu ditu bertan parte hartzeko, tartean Ioseba Fernandez iturmendiarra. Irristalari-ekasteartean hartu zuten Argentinarako bidea, ordutegiari eta bertako pistari egokitzeko. “Mundialak

hasi baino 10 egun lehenago iritsi gara bertara eta nahikoa tartea izango dugu egokitzeko” adierazi du Ioseba Fernandezek. Iturmendi-arrak pistako 300 eta 500 metroko probetan lehiatu da eta zirkuituko 200 eta 500 metroko probetan. “Helburua podiumeko lehian egotea da”. Kolonia, Frantzia, Belgika, Holanda eta Argentina dira aurretik latzenak.

Mendi txirrindularitza



Sakanako bikerrek Bilbo-Muskiz batu zuten

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Burunda Txirrindularitza Taldearen laguntzarekin, mendi bizikleta edo BTT bizikleta ibilaldia antolatu

zuen igandean. Bilbotik hasita Muskizera joan ziren izena eman zutenak, bide gorria jarraituz (55 km). Gustura pasatu zuten eguna.

Futbol 8

2. jardunaldia Kimuen Futbol 8 Topaketetan

Igandean, Altsasuko Dantzalekun Aurreko igandean abiatu ziren Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketak. Topaketa txapelketa moduan jokatu zen da, baina ez da sailkapenik egiten, helburua txikienengan kirola eta futbola sustatzea baita. 10 talde lehiatzen ari dira.

2. jardunaldia
Igandean, Dantzalekun
10:30ean Sayas - Urdiain
11:30ean Dantzaleku - Sutegi
11:30ean Arbizu - Lagun Artea
12:30ean Txartel - Mediolanum
12:30ean Kaixo - Tipi Tapa

Pilota



Olaetxeak 22-13 irabazi zion Ezkurdiari final laurdenetako lehen jardunaldian.

Ezkurdia eta Bengoetxea, irabaztera derrigortuta

Olaetxea eta Olaizolaren kontra galdu eta gero, Lau t´erdiko final erdietara sailkatzeko aukerak izateko irabazi beharrean daude Ezkurdia eta Oinatz Bengoetxea

Lau T´erdiko Txapelketako final laurdenetako ligaxka sorpresaz beteta hasi da. Tartean, Joseba Ezkurdiaren kontra garaipen sendoa lortu zuen Mikel Olaetxeak. Asteburu honetan ligaxkako bigarren jardunaldia dago jokoan. Aimar Olaizolaren kontra galtzetik datorren Oinatz Bengoetxea izango du arerio Ezkurdiak, bihar Etxebarrin. Final erdietara sailkatzeko aukerak izateko irabaztera

behartuta daude biak, eta arbitzuarren eta leitzararren arteko lehia estua eta oso lehiatua aurreikusten da, final kutsua duen partida. Ea Ezkurdiak irabazi eta txapelketan aurrera egiteko aukerarik duen.

Sorpresaz sorpresa
Olaetxearen eta Ezkurdiaren arteko lehian Ezkurdia zen favorito. Arbitzuarrak 8-11ko errenta hartu zuen partida hasieran. Baina Olaetxea markagailuari buelta emateko gai izan zen, eta lau t´erdian orain arteko partida bikainena eginez, Ezkurdiaren gainetik pasa zen,

Bakaikoa Nafarroako gazte mailako Buruz Buruko finalera

Erreka taldean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarrak Zugarraldeko Ansori 18-4 irabazi zion Nafarroako Gazte Mailako Buruz Buruko final erdietan. Erreka taldeko bere taldekide Juankorenaren kontra jokatu du final handia, hurrengo astean.

arbitzuarra 22-13 menpean hartuz. Ezkurdiak pilotari ematen dion abiadura eta indarra ez ziren nahikoak izan, eta Olaetxeak tamaina hartu zion arbitzuarrari. Aldiz, gipuzkoarren jokoari erantzun ezinik ibili zen Ezkurdia. Olaetxe-ari guztia atera zitzaion ongi. Lau T´erdian Lemuno, Jaunarena, Barriola eta Ezkurdia menpean hartu ditu orain arte, sorpresa galanta emanez.

Lau t´erdiko final laurdenetako ligaxkako 2. Jardunaldia

Olaizola II.a - Olaetxea (ostiralean, 22:00etan, Atano III.lean. ETB1)
Bengoetxea VI.a - Ezkurdia (larunbatean, 18:00etan, Etxebarrin)
Irujo - Retebi BI (larunbatean, 16:45ean, Labriten)
Xala - Saralegi (igandean, 17:00etan, Astelenan. ETB1)

Mendia



Arakilgo eta Irurtzungo mendi ibilaldian parte hartu zutenek talde argazkia atera zuten. SOKORRO ALZUETA

Euskaraz Bizi Nahi Dut arrakastatsua

Arakilgo eta Irurtzungo Udalek eta Aizpea Euskara Taldeak igandean mendi irteera antolatu zuten, Euskaraz bizi nahi dut lelopean. Mendia eta euskara lotzea zen erronka. Egiarretako Itxasperri baselizan goizean jarritako hitzorduari 120 pertsonak baino gehiagok eran-

tzun zioten, eta, eguraldia lagun, egun bikaina pasatu zuten guztiak. Bi txango antolatu zituzten. Txikiendako bata. Bi begiraleen laguntzarekin, Itxasperritik Hiriberrira joan etorria egin zuten, gustura. Helduendako, aldiz, ibilbide luzeagoa zegoen prestatuta. Itxas-

perritik Hiriberrira joan ziren mendizaleak, bertatik Berastegiko Arratera joan eta Agirira heltzeko. Han buelta hartu eta Itxasperri-ari iritsi ziren, auzatera. Partaide guztiak diploma jaso zuten eta hainbat sari zozketatu ziren guztien artean.

Josema Urrestarazu

Eskalatzailea

Testua: Eñaut Agirrebengoa

Kirol gizona dugu Josema Urrestarazu: korrikalaria, eskiatzailea, txirrindularia... Baina, batez ere, eskalatzailea. Bizitza osoa darama rokodromo eta paretan munduan, batetik bestera. Europan zehar leku askotan ibilia da, baina aitortu digu eskaltzeko hemen bezalako lekurik ez dagoela. Altsasuarak ez du punta-puntako eskalatzaileek duten sonarik, baina ez da zertan haietaz bekaiztu. Izan ere, paretan gora egiteari ekiten dionean, maila aparteko eskalatzailea dela erakusten du. Horren adibide da joan zen abuztuaren 31n “Akelarre” bidea kateatu izana, ordura arte soilik Iker Pou eta Dani Andradak lortutako zerbait.

Noiz hasi zinen eskalatzen?
13-14 bat urterekin.

Zerk erakarri zintuen?
Hasiera batean mendian ibiltzen nintzen, Altsasuko Mendigoizaleak taldearekin eta. Giro horretan eskaladan zebilen jendea ezagutzen joan nintzen: Koldo Arnanz, Aranburu... Beraiei esker pixkanaka eskaladarekin kontaktua hartzen joan nintzen, eta geroztik ez naiz gelditu.

Prestaketa aldetik beste kiroletatik desberdina da?
Bai, prestaketa oso berezia da. Berezia eta zaila. Atletismoan, adibidez, entrenatzeko metodo asko daude, baina eskaladan oraindik metodo horiek garatzeke daude. Beste kiroletan prestaketa jakin bat eraman da badakizu sasoiko egonen zarela. Eskaladan, ordea, ez da oraindik horrelako formula miragarriarik aurkitu. Agian kirol mediatikoago bat izango balitz...

Zure entrenamenduak nolakoak izaten dira?
Altsasuko rokodromoan ordu asko ematen ditut, besteak beste indarra eta erresistentzia lantzen. Denboraldiaren momentuaren arabera entrenamenduak desberdinak izaten dira. Helburu jakin bat dudanean entrenamenduak espezifikokoak izaten dira.

Elikadura bereziki zaindu beharreko kontu bat da?
Pisua oso garrantzitsua da eskaladan. Nahiz eta asko entrenatu, ez baduzu pisua kontrolatzen, jai duzu. Ez dut esaten obsesionatu behar zarenik, baina zaindu behintzat zaindu behar da.

Eskaltzeko baduzu leku kuttunik?
Pribilegiatu bat sentitzen naiz. Azken finean, hemendik ordu bate-

“Eskaladan noizbait beldurra sentitzea normala da; gakoa beldur horrekin jostatzean datza”


ra eskaltzeko leku oso egokiak dituzu: Etxauri, Apellaniz, Egino... Europa aldera asko irten izan naiz, udako oporretan bereziki, eta urtaror horretan eskaltzeko ez dira baldintza egokiak ematen. Ni behintzat hemengo lekuekin gertzen naiz. Etxaurin eta Lezen asko disfrutatzen dut. Ez dut zertan kanpora joan eskaladaz disfrutatzeko.

Eskalada kirolik gogorrenetarikoa bat bezala kontsideratzen da. Ados?
Fisikoki ez behintzat. Entrenamendu on bat behar da, baina fisikoki atletismoa eta txirrindularitza gogorragoak direla uste dut. Eskaladako nekea ez da beste kirol horietako berbera.

Eta alde psikologikoak zenbaterainoko garrantzia dauka?
Burua eskaladan ia %80 dela esan daiteke. Uneoro zentratuta egon behar zara, erorikoengatik eta. Gainera, eskaltzeko oraindik asko falta zaizunean behar-beharrezkoa da burua hotz mantentzea, buruari buelta asko emanda azkenean nekatzea besterik ez baituzu lortzen. Indar psikologiko hori azkenean urteekin hartzen joaten zara. Noizbait beldurra sentitzea normala da; gakoa beldur horrekin jostatzean datza, beti ere burua galdu gabe.

Ziurrenik berriki egin duzun “Akelarre” bidea izango da orain arteko lorpenik garrantzitsua. Zer ekarri zizun zuri 9a mailako bide bat patrikaratzeak?
Eskaladan zein gainontzeko kiroletan, motibazioa lortzeko asmoz, helburuak eta erronkak jartzen dizkiot neure buruari. Pare bat urte neramatzan eskaladan nire gradu maximoa igo gabe, eta pauso bat aurrera egiteko irrikaz nengoen. Gauzak horrela, “Akelarre” bide probatu nuen, helburugisa oso polita irudituzitzaidana. Bide benetan ederra da eta, era berean, luzea.

Ziur aski saiakera askoren fruitua izango zen...
Bai. Orain dela bi urte frogatu



nuen lehenengoz. Iaz lesio bat izan nuen atzamar baten lotailuan, eta ezin izan nuen ezertxo ere egin. Aurretik berriz probatzen hastea erabaki nuen. Sentsazioz ondo nengibilen, eta motibazioa goraka zihoakidan. Horrela, ibilian-ibilian bidea kateatzea lortu nuen.

Bide horretan lurretik 60 bat metrora egon zinen. Zer sentitzen da lurrera begiratzen duzunean?
Altuera horretan eskaltzeak psikologikoki ikaragarri hustu nau. Askotan erori naiz oso goian, ordu bete eskaltzen ibili eta gero, eta momentu horietan burutik gauza asko pasatzen zaizkizu. Zalantza egiten duzu berriz ere horraino igotzeko gai izanen zaren edo ez. Psikologikoki oso gogorra da, horregatik esaten dut “Akelarre” bideak hustu egin nauela.

“Akelarre”-z gain, baduzu bereziki gogoratzen duzun biderik?
“Kidetasunaren balio erantsia”, Ekaitz Maizek 2006an egin zuena. Plakako bidea da, eta bereziki gustatzen zait. Bide benetan teknikoa da. “Mamirik gabeko gorputza” ere oso gogoko dut. “Akelarre”-rekin batera horietatik dira nire bi biderik gogokoenak.

Eskalada nola definituko zenuke, bakarkako kirol edota talde kirol bezala?
Niretzako eskaladan harremanak oso garrantzitsuak dira. Ez naiz soilik aseguratzen nauen pertsona batekin joaten. Hortaz landa, pertsonarekin harreman ona izatea beharrezkotzat jotzen dut. Bestelakoan eskalada nahiko indibiduala da, paretan gora azken finean zu bakarrik zoazelako. Baina esan bezala, harremanei garrantzi handia ematen diet.

Jende askorekin eskaltuko zenuen. Miresmen berezia sortzen dizunik baduzu?
Ez, ez naiz oso mitomanoa. Miresmenan nire ondoan dauden pertsonen diet, ez punta-puntan dabiltzanei.

Sakanan geroz eta gazte gehiagok ekiten dio eskaltzeari. Zergatik?
Gakoa rokodromoetan dago. Guk hasieran ez genuen horrelako lekurik, ahal genuen bezala ibiltzen ginen. Ezkutuan ibiltzen ginen, ez baitzegoen batere ondo ikusita, batik bat arrisku kontuengatik. Gurasoei aitzakia franko jartzen genien... Hala ere, urte horien oroitzapen bikainak ditut. Benetan gustura ibiltzen ginen. Egungo egoera oso bestelakoa da. Oraingo gazteek nahi dituzten medio guztiak dituzte eskura, eta horrek gauzak asko aldatzen ditu.

Beste kirol batzuk ere praktikatzen dituzu, eta gainera, soinketa irakaslea zara. Kirolik gabe bizitzeko gai izango zinateke?
Ez, guztiz ezinezkoa litzateke. Kirola betidanik egin dudana zerbait da. Korrika egitea, bizikleta, mendiko eskia... Kirol asko praktikatu ditut orain arte, eta hala egiten jarraituko dut; kirola nire bizitza da. Kirolak naturarekiko harreman estu bat izateko aukera ematen dizu, eta hori beste ezerk ez dizu ematen.

Etorkizunerako baduzu erronka konkreturen bat?
Momentuz eskaltzen jarraituko dut. Orain, agian, bistaz eskaltuko dut gehiago. Negu partean oso gustura eskaltzen dut, niretzako egokiak diren baldintzak ematen baitira. Adibidez, hotzarekin errazagoa da heldulekuei eustea. Bestalde, aitortu beharra dut eski denboraldiari gogotsu itxaroten nagoela.

Futbola
PREFERENTE MAILA. 1. multzoa
7. JARDUNALDIA
ILUNBERRI 4 - LAGUN ARTEA 2 Ongi hasi ziren gauzak lakuntzarrendako, Iñigok Lagun aurreratu baitzuen. Baina tarte laburrean Ilunberri 3 gol sartu zituen. Nahiz eta Ionek Lagunen bigarrena egin, Ilunberri 1augarrena sartu zuen eta 4-2 galduta itzuli zen Lagun Artea Lakuntzara.
Sailkapena >>
1. Baztan 19 p 8. Lagun Artea 8 p
Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA - BAZTAN (Ilgandean, 15:45ean, Lakuntzan)
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
8. JARDUNALDIA
MENDILLORRI 0 - ETXARRI ARANATZ 4 SALESIANOS 1 - ALTSASU 3 Etxarri Aranatzek lidergoari eusten dio Mendillorri taldeari 0-4 irabazi eta gero. Etxarriren defentsa sendoa ongi eutsi zion Mendillorriren erasoei eta Iñaki Razkinek, Asier Urkiak eta Xabatek (2) sartutako golei esker garaipen sendoa lortu zuen Etxarri. Bestalde, Orkoien golea estuan, Iñakik Altsau aurreratu zuen baina berehala berdindu zuen Salesianosek, penaltiz. Nahiz eta txartel horiengatik Altsasu 9 jokalarirekin geratu, taldeak gora egin zuen eta Xabierren eta Berastegiren golek 1-3 irabazi zuen Altsasuk.
Sailkapena >>
1. Etxarri Aranatz 19 p 5. Altsasu 14 p
Asteburuko jardunaldia
ALTSASU - SAN JORGE (Larunbatean, 16:15ean, Altsasun) ETXARRIK atsedean jardunaldia du.

Areto futbola



Saldisek oroigarria eman zion Alexi.

Peñiscolari irabazi ondoren, Palma du aurkari Magnak

Peñiscolaren kontrako partidako ohorezko xakea Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarrak egin zuen

Larunbatean Peñiscola hartu zuen Magna Xotak. Partida hasi baino lehen bi taldeetako jokariak ilaran jarri ziren, Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarrari harrera egiteko. Mariñelarenak partidako ohorezko xakea egin zuen eta oroigarria jaso zuen. Partida hasi eta berehala Peñiscolak aurreratzea lortu zuen. Dani Saldisek markagailua berdindu zuen. Atsedendia iren ondoren Victorrek 2-1 aurreratu zuen Magna, eta minutu bateko tartean Esevenrik eta Victorrek bi gol sartu zituzten. Partida bukatzeaz zegoela bigarren gola sartu zuen Peñiscolak eta 4-2 gailendu ziren irurtzundarrak. “Partida ona egin dugu. Jokoa, ordeen eta intentsitatean ongi ibili gara eta uste dut merezitako garaipena lortu dugula” adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak. Inter Movistar da liderra (16 puntu). Magna 9.a da (10 puntu). Gaur, ostiralean, 12 punturekin 5.a den Palma Futsal taldearen kontra ariko da Irurtzongo taldea, Palman.

Areto futbola



Bueltan da Futsalsakana

8 talde lehiatuko dira txapelketan

1. jardunaldiko emaitzak:

Iturmendi **1** – Racing San Migel **7**
Arbizu **2** – Back Street Boys **0**
Arbizu harrobia **2** – Hijos de perla **3**
Bunker **6** – Auzomotojorik **3**

Aurreko asteburuan hasi zen 2. Futsalsakana Areto Futbol Txapelketa. Uharte Arakilgo frontoiak txapelketako lehen jardunaldia hartu zuen. Sakanan talde afizionatuen areto futbola bulkatzeko asmoz sortu zen aurreko urtean aipatu txapelketa, Irurtzungo Xota areto futbol klubari lotutako Leandro Fernandez jokalaria ohiaren eta emakumeen Lacturale Gurpea Orvina taldeko entrenatzailearen eskutik. Aurreko urtean Arbizu Kirol Taldeak irabazi zuen Futsalligako titulua, eta ondoren jokatu zen Kopan Racing San Migel talde uhartearra gailendu zen. Hain zuzen ere, aipatu bi talde hauek dira aurtengo txapelketako talde faboritoak. Baina gai nontzeko taldeek ez dizkiete gauzak batere erraztuko. Partidak Uharte Arakilgo frontoian jokatuko dira. Lehen jardunaldia jokatuta, Racing San Migel da liderra (3 puntu), Bunker, Arbizu eta Hijos de perla taldeekin puntura berdinduta. Aldiz, Arbizu harrobia, Back Street Boys, Auzomotojorik eta Iturmendi taldeek ez zuten punturik bildu. Hurrengo jardunaldia azaroaren 8an jokatukoda, Uharte Arakilen.

Mendi lasterketak



Munarriz bigarrena Galdamesen

Mikel Beunza eta Nerea Amilibia gailendu ziren Pico la Cruz igotzeko lasterketan

Igandean jokatu zen VI. Galdames igoera, Pico la Cruz mendiko igoera. 6,5 km-ko lasterketa gogorrean 53 korrikalarik hartu zuten irteera eta horietatik 46k lortu zuten helmugara heltzea. Mikel Beunza izan zen irabazlea (40:47). 18 segundo eskasetara sartu zen Aritz Munarriz etxarriarra (41:05). Beñat Katarain lakuntzarra 4. postuan iritsi zen (44:45). Bi sakandarrak primerako denboraldiaosatzen ari dira.

Sakandarrak korrikan

Atletismoa

Zubiria eta Beunza azkarrenak Irurtzunen

GUZTIRA 136 PARTAIDE INGURU IZAN ZITUEN SAKANAKO HERRI LASTERKETA-BURUNDESA SARI NAGUSIAK

Sakandarrak 14. Sakanako Herri Lasterketan:

1.	Mikel Zubiria	27:32
4.	Javi Moreno	27:57
5.	Sergio Garcia de Eulate	28:12
9.	Aritz Pellejero	28:57
10.	Francisco Javier Gomez	29:05
14.	Iban Gonzalez	29:40
19.	Francisco Codon	30:02
21.	Mikel Rubio	30:42
22.	Gorka Garcia de Eulate	30:51
24.	Iñaki Alvaro	31:09
25.	Iñaki Azkona	31:19
31.	Iñigo Maiza	32:52
32.	Juantxo Azurmendi	32:53
33.	Juantxo Angulo	33:04
34.	Izaskun Beunza	33:17
36.	Santi Agirre	33:40
39.	Borja Gonzalez	34:07
43.	Mikel Solas	35:30
44.	Txomin Nagore	36:09
46.	Aingeru Azazeta	36:22
47.	Francisco Jose Juango	36:39
48.	Maite Zabaleta	36:46
50.	Iñaki Razkin	37:51
51.	Juankar Mogollon	37:55
53.	Joxe Mari Mercero	40:26
54.	Josune Senar	40:26
55.	Patxi Atxa	40:26
57.	Haizea Ramirez de Alda	41:15
58.	Isabel Pozueta	41:25
59.	Ane Lizarraga	48:16
60.	Mikel Azkargorta	48:16
61.	Maider Iragi	48:40
62.	Idoia Alzueta	48:40

Kadeteak

1.	Fermin Azkargorta	21:53
2.	Oihan Perez	26:00
3.	Xabier Martirena	26:35
4.	Leire Maiza	29:26
5.	Amaia Vicente	30:01

Larunbatean jokatu zen, Irurtzunen, Sakanako Mankomunitateak antolatutako 14. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia, eguzkipean, udako tenperaturekin. Proba antolatzeko Dantzaleku-Sakana klubaren, Irurtzungo Udalaren eta Irurtzungo Erga Larreak, Guan, Pikuxar, Iratxo eta Jubilatuen elkarten laguntza izan zuen Mank-ek. Mikel Zubiria



Lasterketa gogoz hasi zuten. Argazki galeria www.guaixe.net web gunean.

aretxabaldarra eta Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren azkarrenak. Proba Sakanako Atletismo Koparako baliagarria zen eta giro ederra sortu zen Irurtzunen.

16:00etan hasi ziren kategoria txikiko probak, Irurtzungo udaltxearen inguruan. 61 neska-mutiko inguru lehiatu ziren, giro onean. Aldiz, 17:00etan zuten hitzordua proba nagusian, 14. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusian irteera hartu zuten 75 korrikalarik. Horietatik 69 iritsi ziren helmugara. Irurtzunen prestatutako zirkuituari bi itzuli eman behar izan zizkioten, 7,5 km osatuz. Kadeteek, aldiz, buelta eta erdi.

Gorabeheratsua

Ibilbidea gorabeheratsua zen eta korrikalariek onartu zuten erritmoa hartzea kostatu egin zitzaieiela. Hasieratik Mikel Zubiria, Asier

Latxeta eta Javi Moreno jarri ziren aurrean, eta azken kilometrorara arte elkarrekin osatu zuten bidea. Baina Zubiriak erritmoa bizkortu zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (27:32). 2. segundora Manuel Hurtado eta 9. segundora Asier Latxeta sartu ziren. Javi Moreno, probako lehen sakandarra, 4. a iritsi zen helmugara, 25. segundora (27:57). “Lasterketa oso estua izan da” zioen Mikel Zubiriak.

Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra gailendu zen (33:17). Lasterketa gogorra izan zela nabarmendu zuen, ibilbide gorabeheratsuarengatik. 28. urteko olaztiarrak minutu bat eta segundo bat atera zitzaizkion Miren Otzerim Jauregi zeanuritarrari (34:11). Sole Garcia iruindarrak osatu zuen podiuma (35:21).

Proba ondorengo auzatearekin indarrak berreskuratu zituzten korrikalariek. Bukaera irabazle-

Moreno eta Beunza Sakanako Atletismo Kopako buru

Sakanako 14. Herri Lasterketa jokatuta, Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria txapelketako burua, gizonezkoetan, Javi Moreno altsasuarra da. Haren atzetik daude Francisco Javier Gomez eta Iban Gonzalez eta Sergio Garcia de Eulate, puntutara berdinduta. Emakumezkoetan, Izaskun Beunza da lehena, Maite Zabaleta eta Haizea Ramirez de Alda atzean dituela. Sakanako Kopa erabakitzeko azken lasterketa falta da, abenduaren 8an Altsasun jokatuko den Barricarteren 34. Oroimenezko Lasterketa.



ek, lehen sakandarrek, lehen beterranoek, lehen jubenilek eta lehen kadeteek Irurtzungo komertzioek eskainitako produktu loteak jaso zituzten opari. Horretaz gain, Irurtzungo merkatariek oparitutako makina bat lote gehiago zozketatu ziren parte hartzaileen artean, eta baita ere Irurtzungo jatetxeetan bazkariak eta afariak eta Peio Goikoetxeak eta Oreka fisioterapia emandako masajeak.



Sakandarrak fin Iruñeko Harresietan

2.800 KORRIKALARIK HARTU ZUTEN PARTE, TARTEAN 30 SAKANDARREK

Sakandarrak Iruñeko Harresietako Gaueko Lasterketan:

5 km

1.	Javier Nagore	21:39
12.	Adur Senar	24:55
14.	Alatz Agirre	25:02
16.	Isidro Asurabarrena	25:19
18.	Julen Paniagua	25:28
19.	Iñigo Tobar	25:42
28.	Tomas Guirado	27:13
55.	Xabier Lizarraga	30:10
120.	Mikel Ziria	34:28
126.	Noemi Cordero	34:42
229.	Raquel Fernandez	38:39
292.	Elena Guzman	40:20
382.	Nagore Gallego	42:49
384.	Olatz Gomez	42:49
421.	Alejandro Aiala	43:53
562.	Maitane Izagirre	1:15:57

10,5 km

1.	Alberto Rodriguez	35:16
----	-------------------	-------

35.	Carlos Manero	41:12
47.	Martin Somocurcio	42:15
49.	Juan Carlos Villalobos	42:17
163.	Jon Arellano	46:49
164.	Javier Riezu	46:49
175.	Ignacio Arratibel	47:12
244.	Francisco Mata	49:12
955.	Saioa Jimenez	1:02:44
956.	Fernando Mazkarian	1:02:44

21 km

1.	Victor Amatriain	1:12:48
74.	Gorka Arratibel	1:27:01
92.	Javier Pain	1:28:03
95.	Fernando Ganuza	1:28:19
164.	David Oroz	1:33:13
357.	Peio Larraza	1:43:49
534.	Ixa San Martin	1:56:13

***Oharra:** Sakandarren baten datua pasatu bazaigu, barkatu eragozpenak.



Andoni Azanza 19.a Ataunen

Aritz Kortabarriak irabazi zuen 17 km-ko proba (59:15)

Sakandarrak Ataungo Hiru Auzoetako Korrikaldian (17 km)

1.	Aritz Kortabarria	59:15
19.	Andoni Azanza	1:08:35
26.	Juan Carlos Gomez	1:10:09
30.	Fran Araña	1:10:32
64.	Iñaki Alvaro	1:16:10
79.	Unai Lasa	1:19:59
20.	Iban Verdugo	1:19:59

Azaroaren 9an jokatukoda 50. Behobia-Donostia, eta proba ezagun horren inguruan makina bat lasterketa antolatzen dira. Igandean Ataungo Hiru Auzoetako Korrikaldia jokatu zen (17 km). 119 korrikalari iritsi ziren helmugara, Aritz Kortabarria buruzela (59:15). Makina bat sakandar lehiatu ziren, eta guztien artean Andoni Azanza izan zen azkarrena, helmugara 19.a iritsita (1:08:35).



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA


948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidai mezua **zorion@guaixe.net** -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.



Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ negozioak

LAN ESKAINTZA

Errioxako enpresa. Lana emanen du ordenagai-luarekin etxetik lan egiteko. Adin guztietarako. Telefonoa 699 38 26 73.

Frantses klase partikularak. Frantsesa nire ama hizkuntza da eta maila guztietako klaseak ematen ditut. Baita zientzia eta matematika klaseak ere. Telefonoa 678 30 08 73.

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

San Clemente festetarako Lizarragako elkar-tea hartzeko. Enkantea azaroaren 9an, arratsaldeko 17:00etan Azi Iturri elkartearen bertan. Gutxieneko dirua 600 €.

Sakanan liburudenda eskualdatzen da. Interesatuak 666 79 43 53 telefonora hots egin dezatela.

Ikastaroak

Zuzenean saltzeko estrategiak. Arbizon, azaroaren 7an eta 14an. Ordutegia: 9:00 – 18:00. Argibide gehiago 948 56 70 10 telefonon edo sakana.admon@cederna.es posta elektronikoan.

AES. “Ingelera elkarriketa praktikak”, Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizon, abenduan; “Adimen emozionala”, Arbizon, 30 ordu, irailla-azaroa; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa
V. Gaztezulo bideo lehiaketa. Bideoek “Hi eta

hire munduak” gaia izanen dute oinarri. Gutxienez minutu bat eta gehienez 3 minutuko luzera izan beharko dute. 16 urtetik gorako gazte-ek parte hartu dezakete. Lanak azaroaren 6a eta 16a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago: www.gaztezulo.com

Oharra

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki sarituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartearen sorkuntza-beka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelopean. Ekarpinak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpinak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta

Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan aguten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkar-tea denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoe-

na: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldako tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eram- an: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene- tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonokoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz- kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta- tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzeko, asteartean Iruizuneko eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gune- an (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefo- noa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitetz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru per- tsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, saka- na_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berresku-

JAIOTZAK

- Ander Liaño Mendiñeta,** urriaren 15ean Etxarri Aranatzeko.
- Badara Diouf,** urriaren 21an Lakuntzan.
- Naiara Ramos Apaolaza,** urriaren 24an Bakaikun.

EZKONTZAK

- Mikel Tainta Cuezva eta Miren Iosune Senar Bergera,** urriaren 25ean Altsasun.

HERIOTZAK

- Felisa Areta Larrea,** urriaren 16an Lakuntzan.

(Aurreko astean izena gaizki jarri genuen. Barkatu eragozpenak).

- Gonzalo Ventura de la Plaza,** urriaren 24an Altsasun.
- Feliciano Garcia Lopez,** urriaren 25ean Altsasun.
- Maria Teresa Gorospe Donazar,** urriaren 27an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

ratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Hemen da Desvarios Varios

Altsasuko taldeak aurreneko diskoa kalean du

Bi aste dira lehen diskoa kalean dutela eta “pozik” eta “ilusioz” hartu dute Desvarios Varios taldekoek. **Beleixe Irratian (FM 107,3)** esan dutenez, “Lehen lana izateko oso lan ona dela uste dugu. Lehen lan horren inguruko kritika onak jaso ditugu. Halako lehen lan bat ateratzeko taldeari bultzada eman diezaioke, etorkizuna izan dezakegu”. Taberna eta gaztetxeetan zabalduko dute diskoa

eta hura jendaurrean defendatzeko gogoz daude. Bi urte dira gutxi gorabehera talde altsasuarra sortuzela. Bitaldean elkartetik sortu da taldea. Alde batetik, Aritz (gitarra eta koroak) eta Mikel (bateria eta koroak) talderik gabegeldituziren. Bestetik, Unamunok (baxua eta ahots) eta Jonek (gitarra eta ahotsa) lehengoaren anaiarekin baterian Desvarios Varios taldea sortu zuten. Hainbat gitarra-jole izan zituzten. Azkenean Aritz sartu zen taldean eta ondoren Mikel. Bi taldeek aurretik sortuta zuten materialarekin osatu dute diskoa. 11 kantu jaso dituzte dis-

koan. “Egunero pasatzen diren gauzak: Interneteko mendekotasuna, tratatu txarrak, krisia... gizarte kritika. Punk estiloko letrak, musika halakoa ez bada ere. Esan behar ditugun gauzak ongi esaten ditugu, ez daude gaizki esandako hitzak. Halako hitz gutxi batzuk daude bakarrik”. Haien estiloa taldekide guztien gustuen nahasketatik (punka, metala...) sortu dute **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. **Grabazioaz** “Zortea izan genuen. Ekonomiko-ki aukera sortu zen, dirua genuen une batean eta diskoa grabatzeko aprobetxatu genuen”. Haiek gra-



batzeko aukera bazuten, “baina kalitatea nahi baduzu ordaindu behar duzu”. Altsasuko Itxura estudioan grabatu zuten, Fran Perezekin eta Fonta Kaotikorekin. Oso ongi haiekin. Oso ongi pasa dugu. Lan asko egin dugu. Hilabete bat lanean. Goizez eta arratsalde. Abeslariak utzi zuen eta ahotsak berriro grabatu genituen eta horrek luzatu zuen. Astearte eta ostegunetan entse-

atzeko biltzen dira, baina egunero pasatzen dira lokaletik. “Bi pertsona baldin bagaude, musika egin daiteke”. Altsasuko taldeen lokaletan entseatzen dute, Arrebote, Los del Rayo eta beste taldeekin batera. Arreboteko Ainhoaren eta Leoren, soinu teknikarien eta Jombo lagunaren kolaborazioak izan dituzte diskoan. Entsegu lokala dela eta, kexu ere badira euria egiten duenean ura sartzen delako.



MAIALEN HUARTE ARANO

Bertsolariak aldarean

Uxue Alberdi eta Oskar Estanga halaxe aritu ziren larunbatean, Egiaurretako Itxasperi ermitan. Gauean, berriz, herri bereko Santialde Elkartean 25 lagunek bertso-afarigoxo eta animatu batez gozatzeko aukera izan zuten.

Ermitan, Anaje Narbaiza gaitzartzaile zela, 60 bat lagunenaurrean aritu ziren bertsotan. Hasierako agurraren ondoren, gai hauen inguruan aritu ziren kantuan bertsolariak: inmatrikulazioak, Itxasperin desakralizatu arte ezin direla ezkontza zibilik egin, argin-

dar linea, batukada zer den azaltzea, euskarazko testu liburuak (Uxue bakarka), asmakizunak, gaurko meza bertsolaritza da (Estangak Argian esandakoa azaldu beharra), lehen dena urrutiz zegoen orain dena eskura. Puntu-ka agurtu zuten saioa.

bazterretik

Jose Luis Asensio

Dorama

Manga izeneko komikiak eta anime izeneko marrazki bizidunak oso harrera onak dute Japonian. Hori denok dakigu jada. Eta zer gertatzen da, herrialde batean zerbait arrakasta duenean? Mota askotako produktu ezberdinak sortzen direla horren inguruan. Japonian manga edo anime batek arrakasta duenean, bideojoko, pelikula eta bestelakoak sortzen dira berehalakoan, eta baita niri bitxia iruditutako zitzaidan beste produktu bat ere, *Dorama*. *Dorama*-ktelesailak dira berez, hau da, benetako aktoreekin egindako telenobelak. Ingelerazko drama hitzetik dator, baina Japoniar grafiara itzultzeko dituzten idazkera lege eta arazo fonetikoengatik, *dorama* esaten da Japonian. Normalean ez dute manga eta animean jatorria, maitasun, beldur edo

bestelako telesailak dira, oro har gidoi originalak dituztelarik. Beste herrialdeetan ere ezagutzera eman dira, eta Japoniako kulturaren zaleek *dorama* hitza mantendu dute telesail mota hauek deskribatzeko. Japoniako telebista guztiek ekoizten dituzte *doramak* eta kate bakoitzean gai zehatz bat jorratzen dute. *Dorama* batek 8 eta 16 kapitulu bitarteko luzera du gehienetan, eta arrakasta izatekotan kapitulu berezi bat egiten dute amaiera bezala. Urtean lau denboraldi daude *doramak* ikusteko, hiru hilero denboraldia aldatzen delarik. Hor ditugu neguko denboraldia (urtarrila eta martxoa bitartean), udaberrikoa (apirila - ekaina), udakoa (uztaila - iraila) eta udazkenekoa (urria - abendua). Ez dira kalitate oso oneko telesailak, eta diru gutxi erabiltzen da kapitulu bakoitzeko. Ohikoa

da ordea, Japonian momentuan arrakasta izandako abeslari, aktore edo jende ezaguna agertzea. Normalean, gainera, abeslari famatuak doramen hasierako eta bukaerako kantak egiten dituzte, idoloek botere asko baitute gizartearen batez ere gazteen artean. Eta oso ohikoa da ere *dorama* baten kapitulu, telebistan ikusi baino bizpahiru aste lehenago grabatzea. Zaleek beraz, telebistan seriea ikusteaz gain, handik hilabete eskasera ikusiko dutena nola grabatzen duten ere ikusi dezakete estudio batean edo kalean, non grabatuko den baldin badakite. Mangaren inguruan, *dorama* asko egin dira, komikiak arrakasta duenean. “*City-hunter*”, “*Dr Jin*”, “*Death note*”... niri barregura sortzen zait hauek ikustean, ez zaizkidalako komikiaren kalitatearen pareko iruditzen, baina komiki



baten zalea bazara, oso entretenigarria deritzot bere *dorama* ikustea, Japonian pizten duten zaletasuna ulertzeko. Bitxikeria bezala, “*Perfect blue*” pelikula zoragarria (Satoshi Kon, 1997) mundu bitxi honen deskribapena egiten da. Abeslari famatu batek bere musika taldea utzi eta aktorea moduan *dorama*

batean lanean hasten da. Filmean rol ezberdinak ikusi daitezke, batez ere, zaleen papera, non abeslariaren atzetik bere eguneroko bizia jarraitu, *doraman* grabazioak ikusi, seriea telebistan ere ikusi eta musika kontzertuetara doazen batzuk burua galtzen duten ere thriller psikologiko honen gidoiaren ardatza diren.

Martxan da Etxarriko irakurle taldea

Liburutegian, 19:00etan, dago jarria liburuen inguruko solasaldi-tertuliarako hitzordua

Etxarri Aranazko irakurketa taldeak atzo hasi zuen bigarren denboraldia. Bere helburua euskaraz irakurtzeko ohitura indartzea da, baina, batez ere, irakurritako liburuen inguruan beste etxarriarrek hizketatzea eta liburuari buruzko iritzia partekatzea. Taldea irekia da eta nahi duen guztiak parte har-



Egutegia

Eguna	Liburua	Egilea	Dinamizatzailea
Lastailak 30	Kristalezko begi bat	Miren Agur Meabe	Aingeru
Abenduak 20	Autokarabana	Fermin Etxegoien	Josebe
Ilbeltzak 29	Maitasunezko oihua	Katayama Kyoichi	Gema
Martxoak 12	Arotzaren eskuak	Alberto Ladrón	Eduarne
Apirilak 30	Behi euskaldun baten memoriak	Bernardo Atxaga	Alodia
Garagarriak 11	Aukeratzeko		

tu dezake. “Ez da beharrezkoa irakurle oso trebatua izatea, azken finean, irakurketaz gozatzea eta irakurritakoaren gainean solasaldi-tertulia egitea da helburua” esan digu Aingeru Mikeok.

Aurreneko denboraldian Mike-

ok berak dinamizatu zituen saioak. Atzo ere hala egin zuen. Baina denboraldi berriko berritasunetako bat da taldekideek, txandaka, liburu bana aurkeztuko dutela. Victoriano Huizi udal liburutegian 19:00etan elkartuko dira.



Jon Arretxeren 612 euro eleberria oinarri hartuta literatur solasaldia antolatuta

Abenduaren 17an, asteazkenean, 9:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta AEKK antolatuta

Nobela beltz bat hizketarako gai

Liburuko protagonista bizitzeko edozer gauza egiten duen gizon bat da. Bilboko San Franzisko auzoan bizi da. Afrikarra da. Toure du izena Jon Arretxek sortu duen sagako protagonistak. Nobela beltzeko oraingo, trilogiaren bidez gaur egungo Euskal Herria-

ren bestelako irudia ematen du Arbizuko idazleak.

612 euro (premia dutenek erakundeetatik jasotzen dute diru kopurua) Arretxeren sagaren bigarren lana da. Gordintasuna eta umorea uztartuz, idazleak erritmo biziko eleberria osatu zuen, ziz-

tu bizian irakurtzen den horietakoa. Eta, hain zuzen, liburu hori irakurtzeko eta abenduaren 17an egilearekin egingen den iritzi trukatetan parte hartzeko gonbidapena luzatu dute Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuti eta AEKtik.

Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallyan izena emateko epea zabalik

Kameratoiaren X. edizioa Durangoko Azokako Iru-dienean izanen da, abenduaren 6tik 8ra

Bi egun, 48 ordu, film labur baten gidoia idatzi, irudiak hartu eta haiek editatzeko. Gehienez ere 6 minutuko iraupenekoa. Euskara hutsean. Horixe da Euskaltzaleen Topaguneak 18

eta 35 urte bitarteko sortzaileei luzatu dien erronka. Kameratoia da, Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen Rallya, eta 10. edizioa du.

Azaroaren 28ra arte eman daiteke izena www.kameratoia.com web orriaren bidez. Aurreneko 30 taldeendako izanen da parte hartzea bermatuta. Behin onartuak izanda, abenduaren 6an parte har-

tzaileek Durangoko Azokako Iru-dienea Ikus-entzunezkoen plaza-ra joan eta aurkeztu beharreko film laburraren gaia eta bertan islatu beharko dituzten ezaugarrien zerrenda jasoko dituzte. Aurretik 48 ordu izanen dituzte film laburra egiteko, abenduaren 8ko goizean aurkeztu beharko baita.

Egun horretan, arratsalde,



Durangoko Zuzagazinemak Kamerateoiaren gala hartuko du. Languztien emanaldia egingen da eta ondoren sariak banatuko dira (1.200,900

eta 600 eurokoak hiru onenendako eta 500ekoa Topagunea saria euskaltzale elkartaren baten izenean aurkeztu duenarendako).

Arte gordinaren berri izateko hitzordua

Gaur, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean hitzaldia emanen du Helena Gonzalezek

Altsasuko III. Arte Azokak gonbidatutako artisten artean dago Helena Gonzalez. Baita Bilboko Zubietxe Arte Tailerra. Gonzalez azken horretan arte-terapeuta gisa aritzen da.

Artea sendatzeko, terapia gisa, erlaxatzeko, komunikazioa, komunikazio esperientzia gisa... erabiltzen du Gonzalezek Zubietxen. Esperientzia horretatik abiatuta, Gonzalez arte sistematik kanpo dagoen “arte gordinari” buruz hitz egingen du.

Akademiatik kanpo eta arte sistemarekin bat egiten ez duen

joera gisa, arte gordinaren ezaugarriak izan daitezke bazterkeria, arau falta edo buruko gaitzekin duen erlazioa. Bilboko Zubietxe Arte Tailerrean gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonendako asistentzia zentroa da. Pertsona da zentroaren jardunaren erdigunea eta erabiltzaile bakoitzari behar duena ematen



saiatzen da. Arte tailerra zentroko beste zerbitzu eta tailerrekin uztartzen da. Gonzalez da tailer hori zuzentzen duena eta berak

emanen ditu arte gordinari buruzko azalpenak. Haien marrazkiak Altsasuko III. Arte Azokan ere ikusgai daude.



Lagun talde ingeles batek osatutako abesbatza Etxarrin

Bihar, larunbata, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan

Chris Malisson musika-zuzendariaren lagunek osatutako abesbatza Choros Amicik,

13na gizon-emakume. Bretaina Handiko hainbat tokitatik Tutburyra joaten dira entseatzera eta ongi pasatzera. Zenbait asteburutan izaten da hori. Lan eta barre eginez 1992az geroztik bidea egin

du Choros Amicik, aparteko musika eginez. Nazioartean ezaguna egin da abesbatzaren musikaren kalitatea, bizitasuna, komunikatzeko gaitasuna eta kolektiboaren izaera sutsuagatik. Europako hainbat agertoki ezagunetan arituta koak dira, baita abesbatza lehiaketetan ere. Esaterako, 2007an, Tolosan bigarren polifonia saria jaso zuen.

Lau sortzaile sakandarren lanak Donostiako Suturak erakusketan

San Telmo Museoan 82 artista garaikideren lanak ikusgai daude ilbeltzaren 25era arte. Haien artean daude Miren Ustarroz, Jose Ramon Anda, Dora Salazar eta Txuspo Poyo

Euskal arte garaikidea da Suturakerakusketaren protagonista. Hainbat belau-nalдитako 82 euskal artisten eta kolektiboren 120 lan inguru daude ikusgai Donostiako San Telmo Museoan. Gehienak nazioartean aitortza jasotakoak dira. Erakusketako komisarioek azaldu duteenez, erakusketa “eraikuntza bat, testuinguruak irudien historian eta bilakaeran duen garrantzia islatu nahi lukeena. Azken batean, Euskal Herriko artista garai-kide batzuen erakusketa bat da, eta interpretazio irekia eta anbigua du. Salbuespenen bat izan ezik, sortzaile ezagunen lanak biltzen ditu”. Erakusketa dozena bat kapitulutan banatu dute komi-sarioek.

Sakandarrak

Ibarreko sortzaileen lanak muse-oko hiru espazioetan opatuko ditu-



Miren Ustarrozen estela.

gu. Ikusten lehena, 3. aretoan, Dora Salazarren obra izanen da, beste zazpi egilerenekin batera ikusgai dagoena. Tren batek bes-te bat estal dezake izenburua duen aretoan monarkia frankismoaren



Jose Ramon Andaren hiliarria.

oinordeko ezarri eta demokrazia parlamentario deritzona iritsi zenetik, euskal gatazkak iraun duen denboraren haria hartzen du kontuan. Aretoan indarkeriaren eta haren ondorio odoltsuen desa-

fioarekin era batera edo bestera zerikusia duten alderdiak daude ikusgai.

Txuspo Poyoren lana 10. areto-an dago. Oreka- ariketak (irteera-metforak) izena hartu duen are-toa “nor bere baitara biltzeko leku berezi bat da. Herritarren parte-hartze irabazia berriz ere. Baina, aldi berean, historia labanaren aho gainean birkokatua”.

Museoko klaustroan dago 12. eta azken aretoa, Moribundia. Erakusketako ibilbideari hila-rri-parke batek ematen dio aka-bera. “Hilartitzek egiaztatzen dute bidea egina dela eta bilaka-erak zantzu batzuk uzten ditue-la hondarrean”. Euskal eskultu-rako izen handiak daude klaus-troan, eta haien artean Jose Ramon Andaren eta Miren Usta-rrozen lanak.

Donostiako San Telmo Museo-ak Artium Euskal Arte Garaiki-deko Zentro-Museoarekin batera ekoiztu du erakusketa. Astearte-tik igandera, 10:00etatik 20:00eta-ra dago ikusgai (astearteetan dohainik).

gertutik >>

Miren Ustarroz

Eskultorea

Nolaz sartu zara Suturak era-kusketan?

Ez dakit, atzeko atetik edo, baina ohore handiz. Ohore handia baita niretzat Jose Ramon Andaren on-donan egotea. Oteizarekin, Bazte-rretxearekin, Txillidarekin, Men-dibururekin... halako titanekin.

Bertigoia emanen du horrek?

Ikaragarrikoa. Hein batean ez da-gokizun toki batean zaudela ema-ten du. Baina egia da heriotza-arte-

ari arreta egiten diogun artista as-ko ez gaudela. Nik uste dut Xabier Saez de Gorbea komisarioak hori aprobetxatu duela pixka bat zubi lana egiteko: batzuk hilik daudela-ko eta gai horri heltzen ez zaiolako. Oso pozik nago.

Bi estela, ezta?

Biak harberan eginak. Artista ga-raikideen ondoan dagoen estelak burdina eta harria ere baditu. Txertaketa bat da. Hori ezberdi-nagoa da. Bestea, San Telmo Mu-seoko klaustroan dauden hila-rrien artean, estela zaharrekin, jarri nuen. Beraz, ikaragarri ga-raikidea dirudien estela bat zaha-rrekin dago eta estela hori gai-nontzekoak baino zaharragoa

izan daiteke. Halako joko bat. Biokoitzeke (Altsasu eta Olazti artean 40 estela zeuden eta 1940 aldean deuseztatu zituzten) este-la baten berrinterpretazioa da.

Museoak berez estela ugari ditu?

Bai. Euskal Herriko museo zaha-rrenak erakusketa berriena hartu du. Han txertatu dugu gure obra.

Zer suposatzen du erakusketan parte hartzea?

Amets bat betetzea. Baina lanean jarraitzeko motibazioa ere ema-ten du. Kanpotik heldu den legiti-mazio puntu bat da. Eta hori beti ona da. Segitzeko kemen gehiago ematen du. Baina hankak lurrean ditut. Badakit egunero lan egitea

dagokidala.

Sakandarrek zergatik joan beharko lukete erakusketa ikustera?

Euskal artearen inguruan oso be-girada berezia da. Inork azken 50 urteetako artean begirada azkar batean kontzentratzea nahi badu, Suturak da, nik uste, paradarik onena. Ia-ia abangoardiak har-tzen ditu. Chillida, Oteiza Mendi-buru... Hauek 50. hamarkadan ikaragarriko obrak egiten hasi ziren. Eta ondoan orain 30 urte dauzkaten eta New Yorken era-kusten ari diren artistak, June Crespo esaterako. Kontzentrazio ikaragarri interesgarria eta oso pedagogikoa da erakusketa.

Suarezek idatzitako «Zerua berun» album ilustratua kalean da

Maite Mutuberriaren irudiekin argitaratu da Peru Abarka lehiaketa irabazi duen obra

Markina-Xemeinen ostira-lean aurkeztu zuten Peru Abarka lehiaketaren uzta: *Zerua berun* (Ibaizabal, 2014) album ilustratua. Lehiaketa bikoi-tza da bizkaitarra, lehenik idazle baten testua hautatzen dutelako. Aurten Castillo Suarezen *Zerua*

berun idazlana aukeratu zuten. Epailleen esanetan, “nabarmen-tzekoa da lan horrek duen maisu-tasuna prosaren eta poesiaren artean zangalatraban aritzeko. Paragrafo trinkoak eta irudiz bete-ak agertzen dira testuan, grista-sun itogarritik askatu nahian”.

Testua izanik, lehiaketako anto-latzaileek ilustrazio ataleko deial-dia egin zuten eta Maite Mutube-rria izan zen aukeratua. Epailcek



esan zuten, “Mutuberriaren ilus-trazioek mihiseak dirudite, berun kolorea primeran islatzen duten urdinek eta grisek zipriztintzen dituzte orrialdez orrialde giza itxu-rako siluetak, hegaztienak... Sua-rezek hitzez kontaktzen duen bar-ne mundua irudietara ekarriz”.

Bisortzaile nafarrak aurkezpen ekitaldian izan ziren eta haien sor-menari buruzko argibideak eman zituzten. Aurkezpen ekitaldira joan-dako herritarrek sortzaileek sina-tutako albumekin bueltatu ziren etxera, Liburutegien Egunaren oroigarri ederra eramanez.



Nonerabili

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurke-tako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

BAIZA MOTOR

ETXARRI ARANATZ

Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN

Menu edo plater konbinatu-ekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan % 30eko des-kontua. Pneumatikoen alda-ketetan % 20ko deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku natura-la) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua gradua-tutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmena-ren errebisioa doan.

XALOK ESTETIKA, KIROL ETA NUTRIZIO ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua, bonu, gim-nasio eta jardueretan izan ezik.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



ostirala

A yellow sun icon with rays, located in the top right corner of the page.

larunbata

igandea



astelehena

asteartea



asteazkena

osteguna



euria: 3%

euria: **10%**
Min: **11** Max: **19**

euria: **23%**
Min: **10** Max: **18**

euria: **88%**
Min: **10** Max: **14**

euria: **98%**
Min: **7** Max: **10**

euria: **97%**
Min: **6** Max: **11**

euria: **95%**
Min: **7** Max: **11**

Min: 13 Max: 21

Min: 11 Max: 19

Min: 10 Max: 18

Min: 10 Max: 14

Min: 7 Max: 10

Min: 6 Max: 11

Min: 7 Max: 11

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	27	3	0
Exarri A.	27	-0.2	0
Altsasu	27	0	0
Aralar	19	8.9	0.4
Urbasa	23	-1	0

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
			
31	6	14	22

Lastaileko bazkide zozketa













LASTAILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte zulo aldizkarian 3 hila-beteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako Kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte zulo aldizkarian 3 hila-beteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte zulo aldizkarian 3 hila-beteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte zulo aldizkarian 3 hila-beteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

Testua: Maider Betelu Ganboa

11. Ingurukoek zer diote? Zuen euskara hobetzen dela nabaritzen dute?

Pilabatnabaritzen da. Udanez gara bildu eta erraztasunean pilo bat galdu dut. Eta orain... berreskuratzera! Harremanak egiteko ere ekimen polita da.

Eguberri postalen eskaintza



Zorionak
eta urte berri on!



Urte berri gozoa
zuen deman!

Usain gozoko postalak,
bi orrikoak, orri baka-
rrekoak... hainbat aukera

Guaixe
KOMUNIKAZIOA
948 564 275 argi@guaixe.net